

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2012ko apirilaren 25a. IX. urtea. 2.397. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Azken lau urteetan Larraulen egindako lana ospatuko dute eskola txikien festan

Ekainaren 3an izango da jai eguna; 3.000 pertsona inguru espero dituzte Larraulen eta horregatik eskolako arduradunek herri guztia lanean izango dela aurreikusi dute

‘Eskola txikiak, herri txikiak, 25 urtez bizirik’ lelopean urteurrenarekin bat egiteaz gain, eskolan «lortutako guztia» ospatu nahi dute herritarrekin **o5**



Abaltzisketak pasa zion jaia antolatzen lekukoa, Larraulgo eskola txikiari, pasa den urtean. HITZA

### «Gure historiaren subjektu izateko eskubidea» berreskuratzeko ekitaldiak, Tolosan

Herriko hainbat eragilek Nafarroako Estatua ekarriko dute gogora maiatzak 3tik 26ra; azken egunerako egun guztiko egitaraua prestatu dute, tartean Amaiur herriari harrera eginez **o2**

#### Mario Rodriguez Vargas

Greenpeace Espainiako zuzendari exekutiboa

### «Gaur egun dugun sistema energetikoa guztiz ez-eraginkorra da»

Gaur, ‘El planeta libre’ filma eta gero, egingo duten solasaldian hartuko du parte Tolosako Naturaldia jardunaldien barruan **o3**

### Herriko armariari buruz hausnarketa egingo dute Zizurkilen

‘1512-2012 Erresuma zaharrari keinua’ lelopean, askotariko ekitaldiak izango dira maiatzean **o5**



→ **Amaiera den hasiera irudikatu du Munitak.** Tolosako Arantza Munita sortzailearen zeramika lanak jaso ditu Aranburu jauregiak, eta bertan izango dira maiatzaren 19a arte. Besteak beste, erromatarren garaitik gaurdaino biziraun duen ‘terra sigillata’ izeneko teknika erabili du buztina lantzeko. **o4**

Tolosako Lizardi kultur elkarteak antolatu du, hainbat eragilerekin batera, maiatzerako egitaraua

#### Itzea Urkizu

1512ko uztailen Gaztelako armada Nafarroako Erresuma konkistatu zuen, eta 500 urteren ondoren gogora ekarri nahi izan du gertakari hura Tolosako Lizardi kultur elkarteak. Herriko beste hainbat eragilerekin batera, egitaraua osatu dute datorren maiatza osorako; hitzaldiak, txangoak, eta festa egun «handia» antolatu dituzte.

Aurkezpen agerraldian, Lizardiko antolatzaileek egitasmoaren helbururik behinena nabarmendu nahi izan zuten: «Helburua ez da konkista ospatzea, ezta konkistaren apologia egitea ere. Nafarroako Estatuaren iraganaren eta orainaren arteko loturak agez jartzea da helburua, eta bide horretatik, neurri batean gaur egungo egoeraren jatorria ezagutaraztea».

Nafarroako konkistaren 500. urteurren hau gogora ekartzeko, askotariko jarduerak antolatu dituzte. Lizardi kultur elkartearen egitasmoak, ordea, bidelagun izango ditu hainbat eragile. Horrela beraz, Nafarroako Estatuaren omenaldian parte hartuko dute Tolosako Udalak, Albizturko Udalak, Baztango Udalak, Urkizu elkarteak, Andia kultur elkarteak, Udaberri dantza taldeak, Oargi elkarteak, Tolosa Kantarik, Bonberenea txarangak, Tolosako Musika Bandak, dultzaineroek nahiz 1512 Nafarroa Bizirik elkarteak.

**«Egungo egoeraren sustraiak»** Prentsaurrekoan, oroimen historikoa nabarmendu zuten Irati Hartsuaga eta Juantxo Agirre Mauleon, Lizardiko kideek: «Gaur egun bizi dugun egoera politikoaren sustraiak garai hartako konkistan errotzen dira. Ez dugu XVI. mendera itzuli nahi; historiari ikasi behar dugula adierazi nahi dugu, Euskal Herriaren historia eraiki nahi badugu». Horrela beraz, maiatzerako prestatu duten egitarauaren zer-



Irati Hartsuaga eta Juantxo Agirre Mauleon, parte hartuko dute eragileetako kide batzuekin. I.URKIZU

## Nafarroako Estatu gogora ekarriko dute herriko hainbat eragilek

gatia labur azaldu zuten antolatzaileek.

1512ko uztailen Gaztelako Erresumako 12.000 soldadu Iruñean sartu ziren, eta pixkana, Nafarroako Erresumak Pirinioen hegoaldean zuen lurraldea konkistatu zuen, gero iparraldekoaren jabetza ere izateko.

Nafarroako Erresuma historian zehar «Euskal Herriaren subjektu politikoa» izan dela nabarmendu zuten agerraldian: «1512ko konkistaz geroztik, Euskal Herriak ez du estaturik izan». XVI. mendeko gertaera hauen ondorioz, Euskal Herriak nortasun politikoa eta erabakitze gaitasuna galdu zuela azaldu zuten Lizardiko kideek: «Kultur gabetze prozesua inposatu digute herrialde konkistatzaileek; gure ohiturak, izaera, eta, batez ere, hizkuntza desagerrarazten saiatu dira, eta lortu dute geografia eremu zabal batean».

Honen guztiaren aurrean, due-

la 500 urteko gertaera gogora ekartzeaz gain, zenbait aldarri ere zabaldu zituzten antolatzaileek, egitarauaren harira.

Batetik, Euskal Herriak «erabakitze eskubidea berreskuratu behar» duela nabarmendu zu-

ten, «Europar Batasunaren aurrean Euskal errepublika independentea sortzeko».

Bide honetan, izan zuten mugez harago begiratzeko tarterik ere, eta AEBetako Pete Cenarrusa politikariaren hitz batzuen ai-

pamena egin zuten: «Gure historia propioaren subjektu izateko eskubidea berreskuratu behar dugu, eta beste nazioen historiako objektu izateari utzi behar diogu».

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

### ↓ Nafarroako Estatu Gogoan ekimeneko, egitaraua

#### MAIATZAK 3, OSTEGUNA

■ **19:30.** Herri baterako mapak erakusketaren inaugurazioa, Aranburu jauregian. Izenburu bereko liburua idatzi duen Jose Mari Esparzak hitzaldia eskainiko du. Maiatzaren 27ra bitarte ikusgai izango da erakusketa.

#### MAIATZAK 10, OSTEGUNA

■ **19:30.** Xosé Estevez eta Jose Luis Orellaren eskutik, *Navarra y sus relaciones con Castilla y la Santa Sede* hitzaldia, udaletxe-ko pleno aretoan.

#### MAIATZAK 17, OSTEGUNA

■ **19:30.** Pello Monteanoren eskutik, *La guerra de Navarra, crónica de la conquista española* hitzaldia, udaletxe-ko pleno aretoan.

#### MAIATZAK 19, LARUNBATA

■ **10:00.** Albizturko Mendikute gazteluari buruzko proiektzioa eskainiko dute Urkizuko auzo elkarteak, eta Antxon Bandresen omenezko oroigarria jarriko

dute. Gero, 45 minutuko ibilaldia egingo dute Mendikutera. Irteera doakoa izango da, eta kultur etxean eman beharko da izena.

#### MAIATZAK 20, IGANDEA

■ **08:30.** Egunpasa egingo dute Amaiurko gaztelura. Gazteluaren bisita gidatua, eta indusketen inguruko datuak eskainiko ditu Juantxo Agirren Mauleonek. Eguerdian, Tolosako Mendialde jatetxean bazkaria egingo dute. 30 euro ordaindu beharko da, eta kultur etxean eman beharko da izena.

#### MAIATZAK 24, OSTEGUNA

■ **19:30.** Mahai ingurua pleno aretoan, Floren Aoi, Bixente Serrano Izko eta Joseba Asiroren eskutik: *Nafarroako konkistaren aitzakiaz, gure geroari buruzko gogoeta*.

#### MAIATZAK 25, OSTIRALA

■ **20:30.** Ibarroko Alurr dantza taldearen *Izanak dirau 1512* emanaldia, Leidor aretoan.

#### MAIATZAK 26, LARUNBATA

■ **09:00.** Gaiteroen dianak Tolosako auzoetan.  
 ■ **10:00.** Gaiteroen dianak Alde Zaharrean barrena.  
 ■ **11:00.** Tolosako Musika Bandaren diana Alde Zaharrean.  
 ■ **11:30.** Tolosako Udaletxean, Baztando Udalarri eta Amaiurko herriari harrera ofiziala. Segidan, Plaza Zaharretik, buruhandiak, gaiteroen bandak, Tolosako Musika Banda, dantzariak, udal ordezkariek eta herritarrak Nafarroa etorbidera abiatuko dira.  
 ■ **12:00.** Nafarroa etorbideko haur parkea *Amaiur* izendatuko dute monumentu bat jarri, eta omenaldia ospatuko dute.  
 ■ **12:30.** Alde Zaharrean erraldioak, gaiteroak, dantza taldea, txaranga, Iparraldeko kuxkuxtu eta Tolosa Kantari ariko dira.  
 ■ **14:30.** Herri bazkaria Zerkausian, 15 euroren truke. Txartelak Denak, Raku, Orbela eta Xirimiri tabernetan. Gero, Larrain dantza.  
 ■ **22:30.** Erru Gabe, Kaskezur eta Ufestuek talde baztandarrak, Plaza Berrian.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Bigarren bilera egingo du, gaur, hondakinen kudeaketerako lan taldeak

Gipuzkoako hondakinen kudeaketari buruz ariko dira Imanol Azpiroz eta Carlos Ormazabal

I. Garcia Landa

Tolosako Udalak abian jarri duen hondakinen kudeaketarako lan taldeak bigarren bilera izango du gaur, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

Bilera horretan bi gonbidatu izango dira: Imanol Azpiroz San Markos Mankomunitateko lehendakariorde ohia eta Carlos Ormazabal aurreko legegaldiko Gipuzkoako Garapen Jasangarriko diputatua. Zehazki, Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren inguruan ariko dira bi hizlariak solasaldian.

## Irudia ◊ Tolosa



## MUSIKA KAPERAREN OMENALDIA

Santa Maria musika kaperak omenaldia egin berri die aurreko hiru zuzendariei, Migel Zeberio, Luis Mari Gartzia, eta Ander Letamendia; eta organista ohiari, Pepe Arzellus. Joxe Mari Villanueva egungo lehendakariak azaldu duenez, «orain 30 urte inguru, musika kapera galtzeko zorian izan zen, eta, besteak beste, omendutako hiru zuzen-

dari ohiei eta organista ohiari esker lortu zen erakundeari eustea». Igandean izan zen omenaldia. Lehenbizi Santa Maria parroikiko mezan abestu zuen musika kaperak. Ondoren, Fronton jatetxean egin zuten ekitaldia. Argazkian, Zeberio, Arzellus, Luis Orduña egungo zuzendaria, Gartzia eta Letamendia. HITZA

## → Laburrak

### Jai batzordearen bilera egingo dute gaur

**GIZARTEA** ◊ Jai batzordeak bilera egingo du, gaur, 19:00etan. Sanjoanek izango da gaia. Alde batetik, 19:00etan Kuadrila Eguna landuko dute; bestetik, 19:30ean, egitaraua eta ekitaldiak landuko dituzte. Bilerak Euskal Herria plazako gerontologiko zaharreko gelan egingo dute.

### Batxilerrari eta heziketa zikloei buruzko saioa

**TOLOSA** ◊ Orixe institutuak batxilerrari eta heziketa zikloei buruzko informazio saioa antolatuko du biharko, hilaren 26. Gorasabel eraikinean izango da, 19:00etan, eta bertan izango da Alberto Ariño orientatzailea. DBHko laugarren mailako eratorren ikasurterako aurremerituko maiatzean eta ekainean egin behar dute, eta horregatik saioa garrantzitsua dela azaldu dute institutuak.

## Mario Rodriguez Vargas ◊ Greenpeace Espainiako zuzendari exekutiboa

# «Kontsumitzeko eredua aldatu behar dugu»

Imanol Garcia Landa

Naturaldia jardunaldien gaurko saioan *El planeta libre* filma emango dute, Topic zentroko aretoan, 19:30ean. Ondoren solasaldia izango da Mario Rodriguez Vargas (Madril, 1965) Greenpeace Espainiako zuzendari exekutiboarekin.

### Zer harreman duzu *El planeta libre* filmarekin?

Pelikula aitzakia da garapen ereduaz hausnartzeko. Zine forum moduko bat egingo dugu. Pelikula amarekin duzu, batzuetan bitxia da, eta gizadiak dituen egungo arazoak jorratzen ditu: poluzioa, trafikoa gehiegikeria, nuklearren gaia... 6000. urtean beste planeta batean bizi den komunitate bat ikusten da pelikulan, eta egungo Lurra planetarajoa den horietako bat, eta une horretan bizi den zentzuzabekeria ikusten du.

### Zer analisi egiten duzu zuek egungo egoerari buruz?

Egun, planetak eusten ez dion handitze mailan gaude. Europar batek hiru planeta egongo balira bezala kontsumitzen du, eta estatubatuar batek bost egongo bali-

ra bezala. Herrialdeen zor ekologikoa neurtzen duen New Economics Foundation erakunde independenteak orain gutxi esan du Espainiak dagoeneko urte honetako errekurtsio guztiak kontsumitu dituela. Hemendik aurrera, kontsumitzen den guztia beste herrialdeen lepotik izango da, edo deficit ekologikoa sortuko da.

### Eta zer egin daiteke egoera horren aurrean?

Greenpeace-tilk ikusten dugu eredu aldaketa, batez ere, eredu energetikoaren aldaketatik hasi behar dela. Egun dugun sistema energetikoa guztiz ez-eraginkorra da. Egin ditugun zenbait ikerketen arabera, eraginkortasunez eta teknologia berrien erabilera, kontsumitzen dugun energiaren %41etik %48ra aurreztu dezakegu, bizi kalitatea jaitsi gabe. Merkatuak eskaintzen dizu hainbat aukera gutxiago kontsumitu ahal izateko. Esaterako, gertuago daukaguna kontsumitzea. Ezin dira laranjak jan urte osoan zehar. Txinatik edo Txiletik ekarri behar dira, eta jakin behar da horrek kostu ekologiko bat duela. Globalizazioak eragin kaltegarri bat du: ez dira ari etekinak edo in-

gurumenaren babesa globalizatzen, baina bai eskubide sozialen galera, edo ingurumenaren babes falta. Hau da, alde txarrak ari dira globalizatzen.

### Krisi ekonomikoak eragin dezake egungo garapen ereduaren kritikarik, edo eredu beretik oraindik urrutirago joateko erabili daiteke?

Lanera autobusean jaisten naiz. Lehen ia hutsik joaten zen eta orain beteta doa. Zergatik? Besteak beste, jendeak ez duelako hainbeste garestitu den gasolina ordaintzeko. Orain jasangarritasunaren aldeko jarrera batzuk daude, baina askotan halabeharrez. Nire kezka da krisitik ateratzen garenean, jendea ahaztu egongo dela berriro guzti honetaz. Horrez gain, gobernuak eta finantza sistemak krisiaren aurrean ematen duten irtenbidea da, hau da, gehiago ekoiztu behar dela, gehiago kontsumitu behar dela. Finantza eta ekonomia krisi honen eragin zuzena du krisi ekologikoan. Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka guztiz geldituta dago. Krisia bukatzen denean berdin-berdin jarraituko du arazo horrek hor. Orain ez badugu ezer egiten, arazoa handitu egingo da.



GREENPEACE/ADRIAN TYLER

Tony Blair-en ekonomia aholkulariak, Nicholas Stern-ek, esan zuen aldaketa klimatikoaren aurka egitearen kostua munduaren BPGaren %2a zela, baina ezer egiteak %20aren kostua ekarriko zuela.

### Naturaldia jardunaldietan pertsona eta naturaren aldeko oreka aztertzen ari zarete. Nola ikusten duzu Greenpeace erakundetik gai hori?

Gure erakundeak ingurumenaren babesa du helburu, kontuan hartuta aldagai ekonomikoa eta soziala. Uste dugu azken 20 urtean aurrerapausoak egin direla ingurumenarekiko sentsibilizazioan. Ingurumerari eraso zuzen bat egiten zaionean, alarma soziala sortzen da. Arazoa egunero kotasunean dago, hau da, gure bizimoduak eta kontsumitzeko ereduak ingurumenean eragin ezkorra dutenean. Izan ere, lehen

esan dudana moduan, apirilera kontsumitu badugu urte guztirako ditugun errekurtsioak, ez dugu harreman orekarik ingurumenarekin. Aukera dugu hori aldatzeko, bizi kalitatea galdu gabe, baina horretarako gure kontsumitzeko eredua aldatu behar dugu.

## Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Zerbitzari gazte bat behar da, barrako lanak eta mahaia zerbitzatzeko Ibarra taberna batean. Asteazkenean zehar arratsaldean eta asteburuetan egun osoa egingo da lan. Egun bat jai. 40 orduko kontratua. Telefonoa: 646 186779.

Arantza Munita Mexikon hasi zen, 1984. urtean, zeramikarekin lanean. Orduz geroztik, eskulangintzaren munduan jardun du, eta naturako elementuetatik abiatuta, erakusketa antolatu du Aranburu jauregian.

# Ziklo bat naturatik gotorlekuetara

## Itzea Urkizu

**A**maiera den hasiera izenburua aukeratu du Arantza Munitak (Tolosa, 1958), Aranburu jauregian inauguratu berri duen erakusketarentzat. «Hasierak zeriakusia du amaierarekin, eta egindako azken obrek beste hasiera bat irudikatzen dute. Ziklo edo zirkulu moduko bat da guztia», dio Munitak.

1984an izan zuen Arantza Munitak, lehen harremana zeramikaren munduarekin, eta Mexikon izan zen. Orduz geroztik, haika eta bat ikastaro egindakoa da Euskal Herrian, Mexikon nahiz Espainian, 2008ra bitarte.

## Buztingintzaren sekretuak

Bere ibilbide artistikoan barrena, hainbat ikastaro jasotakoa da Arantza Munita tolosarra. Bide horretan, zeramika lantzeko hainbat teknika erabili izan ditu obrak sortzerakoan.

*Terra sigillata* teknika nabarmendu nahi izan du artista tolosarra. Erromatarren garaitik gaurdaino biziraun duen teknika da, eta «buztinaren gainean ematen den buztina» dela dio Munitak: «Normalean ateratzen diren koloreak marroiaren eta naranjaren inguruan ibiltzen dira. Teknika naturala da, eta ikastaro bat egin nuen honekin nola lan egin ikasteko. Asko gustatzen zaidan teknika da, pieza bakoitza goxotasunez tratatzea eskatzen duelako, eta buztina asko ikutu behar delako». Antzinako teknika honi,

metalezko alanbrea, kobrezko sulfatoa eta zerrautsa gehitzen dizkio artistak, eta erakusketan ikusgai diren hainbat piezetan osagai hauen efektuak ikus daitezke, koloretako orbanetan.

Bere lehen obrak sortzen hasi zen garaian, «behetik gorako piezak» egin zituen Arantza Munitak. Horren erakusle da, esaterako, Tolosako Udalak banatuko duen Berdintasun Sarirako aukeratu duten eskultura.

Gerora, ordea, zeramikarekin egindako artelanek forma kiribilduagoa izateko joera azaldu zuten. Naturako elementuak bere sormenerako iturri nagusietako bat izan dira beti, eta bide honetan, haziak, liztor buruak, maskorrak, nahiz sexu organuak ikusi

ahal izango ditu erakusketako bisitariak.

Horrez gain, ordea, maskara moduko piezak, eta etxe edo gotorlekuak ere, bere lanaren ondorio izan dira azken urteotan.

*Etxea ez den etxea* izena erabili du Munitak, hain zuzen ere, zeramikazko gotorleku argiztatuak jarri dituen gela izendatzeko: «Etxe zaharretako habeei begira sortu zitzaidan ideia, eta horregatik daude etxe hauek guztiak, burdinezko oinarri baten gainean». Sorta honen bidez, artistak etxearen inguruko hausnarketa egin du.

Datorren maiatzaren 19ra bitarte ikusgai izango da Arantza Munitaren *Amaiera den hasiera* erakusketa, 17:30etik 20:30era, Aranburu jauregian.



Hasierako piezak behetik gorakoak dira. I. URKIZU



Azken sormen lanak naturako elementuetara iritsi dira. I. URKIZU



Zeramikazko maskarak ere badira erakusketan. I. URKIZU



Etxearen edo babeslekuaren inguruko hausnarketa egin nahi izan du Munitak. I. URKIZU



Berdintasun sarirako oinarria izan da honako lana. I. URKIZU



Igor Iturain, Mikel Olano, Lurdes Imaz eta Ixiar Eizagirre Donostiako Koldo Mitxelena kultur etxean, eskola txikien festa aurkezten. A. IMAZ

## Eskola txikien festaren 25. urteurrena Larraulen ospatuko dute, ekainean

Guraso elkarteko ordezkariaren esanetan, azken urteetako lana ospatzeko ere balioko da jaia

A. Imaz Larraul

Eskola txikien jaia 25 urte betetzen ditu aurten, eta ospakizuna Larraulen izango da, ekainaren 3an. Antolatzaileek, 260 biztanle

inguruko herrian, 3.000 pertsonen bisita aurreikusten dute. Horretarako, herri guztia lanean ariko da, eta alde zuzenetik eskerrak eman nahi izan dizkie larrauldar guztiei.

Aurtengo jaiaren aurkezpen ekitaldia atzo egin zuten Donostiako Koldo Mitxelena kulturumean. Ekainaren 3ko egitaraua aurkeztu zuten bertan, egun guztiko jaia ordezkatzeko duen kartela. Aurkezpen ekitaldi horretan, Mikel Olano Gipuzkoako Eskola

Txikien Koordinakundeko kidea, Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasle Guraso Elkarteko koordinatzailea, Igor Iturain Eudeleko kidea eta Ixiar Eizagirre Larraulgo Guraso Elkarteko kidea egon ziren. Guztiek azpimarratu zuten eskola txikien beharra eta funtzioa, eta hor kokatzen da aurtengo jaiaren leloa: *Eskola txikiak, herri txikiak, 25 urtez bizirik*.

Larraulgo Guraso Elkartearen izenean Ixiar Eizagirrek hitz egin zuen, eta jaiaren berria ilusio

handiz hartu zutela azpimarratu zuen: «Batetik, festaren 25. urteurrena Larraulen izatea ohore handia zelako, eta bestetik, gure herriko eskolaren ibilbidean, momentu honetan esanahi berezia hartzen duelako festak: guretzat ospatzea esan nahi du. Ospatu egin nahi dugu, azken lau urteotan Larraulen egin dugun lana, eta lortu dugun guztia». Izan ere, berriz ere eskola zerbitzua martxan jartzea lortu dute larrauldarrak, 30 urtez itxia egon eta gero.

Mikel Olanok bere aldetik, festaren ibilbidea eta 1988ko lehen jai hura ekarri nahi izan zituen gogora. Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko ordezkariak, ondorio bat partekatutik nahi izan zuen festaren inguruan elkartzen diren guztiekin: «Proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa da guraso, irakasle eta udalen elkarlana. Herri bakoitzean hiru eragile hauek batera lan egin behar dute, eskola aurrera atera dadin».

### ↓ Egitaraua

#### EKAINAK 3, IGANDEA

- **10:00etan.** Txupinazoa.
- **10:00etatik 12:00etara.** Eskulanak eta tailerrak, 8-12 urteko haurrentzat.
- **11:30ean.** Pirritx eta Porrotxen emanaldi berezia, hauek ere 25 urte betetzen dituztelako, plazan.
- **13:00etan.** Ekitaldi nagusia eta testigu aldaketa, Urbeltza plazan.
- **14:00etan.** Euskolabel bazkaria, frontoian.
- **15:00etatik 16:30era.** Gorritiren xexenak eta pottokak, Otsobal gunean.
- **Arratsaldean.** Kupela taldearen erromeria, plazan.
- **Egun guztian zehar.** Puzgariak, bolatokia, idiak gurdiekin, Eskola Txikiel buruzko dokumentalaren proiektzioa, eta *Kaxa ibiltaria* erakusketa, eskola zaharrean.

## Erresuma zaharrari keinua egingo diote Zizurkilen

Herriko armariaren inguruko hausnarketa egingo dute Maiatza Saltsan egitasmoaren barruan

A. Imaz Zizurkil

Maiatza Saltsan egitasmoa ekitaldiak aurkeztu zituen atzo udalak, *1512-2012, Erresuma zaharri keinua* lelopean. Gai honen harira, herriko armari berriaren inguruko hausnarketan sakondu nahi dute, eta, besteak beste, Juantxo Agirre Mauleon Aranzadiko kidearen hitzaldia egongo da Atxulondo kultur etxean, maiatzaren 17an. Bertan, herriko armariaren inguruan hitz egingo da, aldakuntzaren zergatiaren arrazoak aztertzeko.

Maiatza Saltsan-ekin lotura zuzena ez duen arren, Zizurkilgo Udalak Herri Urrats eta iparraldeko eskolak babesteko apustua egin du. Horregatik, maiatzaren 13rako, herriko autobusa antolatuko du Senperera.

### ↓ Egitaraua

#### MAIATZAK 4, OSTIRALA

- **22:00etan.** Gartzotx film. Eguraldi onarekin Aurrera plazan, eta txarreakin goiko zimitorioan. Sarrera dohainik.

#### MAIATZAK 6, IGANDEA

##### Andatza Eguna

- **11:00etan.** Andatza mendira irteera usurbildarrekin. Hamaitakak eta edaria. Goizean zehar erromeria, trikitilari eta bertsoarietara.
- **12:00etan.** Herri kirolak mendizaleen artean.
- **14:00etan.** Norberak eramanakoarekin bazkaria. Kafea eta kopa banatuko dira.

#### MAIATZAK 10, OSTEGUNA

- **19:30ean.** *1512 Nafarroaren konkistabideoaren* emanaldia eta tertulia, Atxulondo kultur etxean, Anjel Rekalde Nabarralde taldeko kidearen eskutik.

#### MAIATZAK 12, LARUNBATA

- **22:30ean.** Dantza ikuskizuna Alurr taldearen eskutik, Intxaur frontoian. Ibartarrek *Izanak dirau*, 1512 ikuskizuna plazaratuko dute. Sarrera dohainik.

#### MAIATZAK 13, IGANDEA

- **Herri Urrats.** Zizurkilgo Udala autobusa antolatuko du Senperera joan etorria egiteko. Izen emateko aukera hilaren 30etik maiatzaren 10era bitarte luzatuko da: Aurrera plazako bulegoetan, Atxulondo kultur etxean, Iriarten eta Egarrin. 10 eurotan. Irteera 09:30ean izango da Zizurkil goiko plazan, eta 09:40ean Elbarrenako errotondan.

#### MAIATZAK 15, ASTEARTEA

- **San Isidro Eguna.** Meza, eta ondoren herri kirol jaialdia. Aizkoran Joseba Otaegi-Mikel La-

rrañaga bikotea Unai Otaño eta Jon Irazuren aurka. Harri jasotzen Telleria anaien erakustaldia. Ondoren, bazkaria Iriarte jaxtetxean.

#### MAIATZAK 17, OSTEGUNA

- **19:30ean.** Zizurkilgo armariari buruzko hitzaldia Atxulondo kultur etxean. Aranzadi zientzia elkarteak Juantxo Agirre Mauleonen eskutik.

#### MAIATZAK 19, LARUNBATA

##### Kantu Eguna.

- Euskal kantak jai giroan abestu eta ikasteko.
- **12:00etan.** Kantu jirakoan saioa Zizurkil goiko kalean zehar.
- **14:00etan.** Bazkaria zimitorioan. Bazkariko txartelak eskuragai izango dira hilaren 30etik maiatzaren 15era bitarte, Atxulondon, Egarrin, Iriarten eta Plazateberren; 16 eurotan.

■ **Bazkalostean.** Amalur taldearen eskutik kantu saioa eta erromeria.

#### MAIATZAK 20, IGANDEA

- **10:00etan.** Zizurkilgo XIV. Biatloia. Goiko plazan.

#### MAIATZAK 25, OSTIRALA

- **19:00etan.** Loatzo musika eskolako kontzertu instrumentala eta Kantu Jirakoan saioa, Atxulondo kultur etxean.

#### MAIATZAK 26, LARUNBATA

■ **Senidetze Eguna.** El Salvadoreko Segundo Montes komunitatearekin senidetzea, Asteasun edo Adunan.

#### MAIATZAK 30, ASTEAZKENA

- **17:15ean.** Ipuin kontalaria Atxulondon, 5-10 bitarteko haurrentzat.

# Goi tentsioko linearen proiektua alde batera utzi du Espainiako Gobernuak

Ez du proiektuarekin jarraituko, kontsumo azterketa egin eta beharrezkoa dela ziurtatu arte

**Eneritz Maiz**

Red Electrica Española enpresak Deikaztelu (Nafarroa) eta Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa) artean egin asmo zuen goi tentsioko linearen tramitazioa eten egin du Espainiako Gobernuak. Krisia dela eta, gogoeta hasi du Gobernuak eta momentuz bertan behera utzi du proiektua. Ez du baimenik emango eskualdeko hainbat herri zeharkatuz eraiki nahi zituzten bi lineak egiteko.

Duela hilabete inguru, Goierriko eta Tolosaldeko hainbat udal hautetsi, goi tentsioko linearen aurka agertu ziren. Paisaia eta ingurumenean «sekulako kalteak» eragingo dituela nabarmendu zuten, eta herrien eta herritarren osasunerako ere proiektu «kaltegarria» dela iritzi zioten.

Planifikazio berria egingo du Espainiako Gobernuak, eta beharrezkoak direla baieztatu arte, ez du baimenik emango linea horiek egiteko. Argindar kontsumoari buruz egindako planek huts egin dute, eta 2008-2016 urteetarako



Argindar kontsumoari buruz egindako planek huts egin dute. A. IMAZ

egindako kontsumo aurreikuspenek behera egin dute. Red Electrica de España enpresak ekainaren 30erako egin beharko du txostena. Ondoren, Industria Ministerioak, Nafarroa eta Gipuzkoa zeharkatuko dituen goi tentsioko lineen gaineko erabakia hartu beharko du.

**Bilera informatiboa, Leitzan** Gipuzkoaren eta Nafarroaren artean proiektu horren aurkako plataforma bat osatu dute. Goierriko eta Tolosaldeko udaletan, eta Nafarroako hainbat udal eta kontzejutan proiektua jaso eta berehala alegazioak aurkeztu zi-

tuzten. Era berean, udaletan eta elkarrean proiektuaren aurkako mozioak eta manifestuak onartuta daude. Sinadura bilketak ere egin dira. Aste Santuan, Leitzatik abiatuta mendi martxa ere egin zuten, autopista elektrikoaren aurkako informazioa zabalduz.

Gaiaren inguruko informazio zehatza zabalteko helburuarekin hitzaldi bat antolatu du Leitzako plataformak. Maiatzaren 3an, ostegunean, 19:30ean Aurreira elkarteko goiko solairuan izango da. Hizlariak Alberto Frias eta Mikel Bereko gorritiarra izango dira.

# Bihar, ez ohiko osoko bilkura egingo dute

Amezketako udalbatza 20:30ean elkartuko da; besteak beste, osasun publikoaren gaia jorratuko dute

**E. Maiz** Amezketak

Bihar, hilak 26, 20:30ean ez ohiko osoko bilkura egingo dute, Amezketan. Interesa duen herritarrek parte hartzeko aukera dute udaletxeke pleno aretora joanda.

Lehenik eta behin, 2012ko martxoaren 15ean eginiko ohiko bilkuraren akta agiria onartuko

dute. Jarraian, alkatetzaren ebazpenen berri emango dute. Hirugarren puntuan, 2011. urteko Kontu Orokorrak eta Ondasunen Inbentarioen berrikuntza egingo dute.

Laugarren puntuan, ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela arautzen duen udal ordenantza onartuko dute, eta bosgarren puntua mozioa izango da. Kasu honetan, osasun publikoari buruzkoa izango da.

Bukatzeke, batzordeen informazioa emango dute, eta galdera eta erreguetarako tartea zabalduko dute.

• [alegialdea@hitza.info](mailto:alegialdea@hitza.info)

# Zero zabor taldea osatzeko bilera, bihar

Hondakinen gaia jorrazteko taldea osatu nahi dute Ikaztegieta; bilera 20:00etan izango da, udaletxean

**Erredakzioa** Ikaztegieta

Hondakinen arazoaz jabetuta, gaiari helduko dion taldea osatu nahi dute, Ikaztegieta. Hemendik aurrera hondakinen gaia jo-

rratuko duen taldea osatu nahi dute, eta horretarako lehen bilera, bihar, hilak 26, 20:00etan egingo dute.

Gaiaren inguruan interesa eta kezka duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte, elkarlanean lan egitera animatuz. Beste hainbat herrirekin batera, Ikaztegieta ere zero zabor herri izatea nahi dute. Herritarrek, beraiek sortzen dituzten hondakinez arduratzea nahi dute.

• [alegialdea@hitza.info](mailto:alegialdea@hitza.info)

## Irudia • Alegia eta Tolosa



# GURASOAK ETA IKASLEAK IPUIN KONTALARI BILAKATUTA

Alegiako San Juan eskolan Liburuaren Eguna ospatu zuten astelehenean. Haur hezkuntzan irakurketa bereziak egin zituzten. Kasu honetan ipuinak irakurri zituztenak gurasoak izan ziren. Aldez aurretik izena eman zuten gurasoak eskolara joan ziren, eta arabieraz, gaztelaniaz eta euskaraz irakurri zituzten hainbat ipuin. «Oso gustura egon ziren ikasleak», adierazi dute eskolatik. Alegian gurasoak izan baziren protagonista, Ikastolan ikasleak izan ziren. Liburuak irakurtzearen garrantzia kontuan hartuta, Liburu-

ruaren Eguna, Laskorain ikastolan ere gogoan izan zuten. Lehen Hezkuntzako ikasle zaharrenek, ikasle txikiak Liburu Eguna zer den azaldu eta liburu baten zati bat irakurri zieten. Urte osoan zehar *Entzun eta irakurri, gozatu elkarri* kanpainaren bidez irakurtzaletasuna lantzen dute. Bigarren Hezkuntzako ikasleek berriz, ipuin bat irakurri zuten. Megafoniatik aritu ziren, eta Alegian bezala, hainbat hizkuntzatan irakurri zituzten ipuinak. HITZA



Subegi egunaren kartela. HITZA

## Subegi eguneko ekitaldietarako sarrerak eskuratzeko aukera zabalik

Maiatzaren 12an izango da Ibarrako ekimena, eta Zea Mays eta Hesianen musika izango da, besteak beste

### I. Terradillos Ibarra

Subegi eguna antolatuta dute maiatzaren 12rako, Ibarran. 12:00etan dultzaineroak izango dira, 14:30ean bertso bazkaria Xabier Silveira eta Alaia Martinekin, ondoren haur jolasak, eta 20:30ean hasi eta goizaldera arte Zea Mays, Hesian, DJ Bull, DJ Elepunto, Willis Drummond edota La Jodederaren musikaz gozatzeko aukera izango da Emeterio Arreseko frontoian. Bertan karpa jarriko dute, txosnak egongo dira, eta edatekoaz gain, ogitartekoak ere izango dira.

Bazkarirako txartelak (hurrek 6 euro, eta helduek 10) herriko tabernetan eskura daitezke. Kontzertuetarako sarrerak, berriaz, aurrez eros daitezke 10 euroan, Ibarrako Karlatz, Subegi, Zubiaurre eta Atarin; Tolosako Denak, Raku, Meskal eta Eguzkin; Alegiako Ixkiñan; Anoetako Itzulín; Villabonako Iratzarren; eta Leitzako Torrean. Internet bidez, [www.musikaze.com](http://www.musikaze.com) atarian jarri dituzte eskuragarri. Bietarako txartela nahi duenak 20 euroko bonua izango du eskura.

# Gorritiko gaztelura mendi irteera, larunbatean, Mendibil taldearekin

Nafarroako konkistaren urteurrenako ekitaldietan parte hartzeko aukera izango dute mendizaleek



Leitzatik Gorritiraino egingo dute ibilbidea leitzarrek. HITZA

### Iñigo Terradillos Leitza

Nafarroako konkistaren 500. urteurrenarekin bat eginez, Leitzako Mendibil mendi taldeak Gorritiko gazteluan eginen den ekitaldirako mendi ibilbidea antolatu du, larunbaterako. Leitzatik ezezik, Araitz-Betelutik, Lekunberritik edota Larraundik ere mendi irteerak antolatu dituzte toki berera joateko. Beraz, jende ugari espero dute larunbatean Gorriti inguruetan.

08:30etan abiatuko dira Leitzako plazatik, eta Kordaun, Axusteko lepoa, Guratz-mendi eta Pagozelai igaro ostean, 12:00etan Gorritiko gaztelura iristea aurreikusita dute. Bertan, Nafarroako

konkistaren inguruko hainbat ekitalditan parte hartuko dute mendizaleek. Besteak beste, zutarrria ezartzea ikusi ahalko dute, eta bertsolarien saioaz gozatzeko aukera ere izango da.

Ekitaldiaren ondoren, norberak emandako ogitartekoarekin eta antolatzaileek eskainitako edariekin (ardo, ura, kafea...) bazkaria egingo dute. Bazkaldu

eta gero, nahi duenak Aresotik barrena oinez itzultzeko aukera izango du, edota, bestela, aldeaz aurretik antolatuturiko kotxeetan itzuli ahalko dira.

Mendi irteera berezi honetan parte hartzeko bihar baino lehen eman beharko da izena. Horretarako, Maimur eta Astiz liburudendetara jo beharko dute interesatuek.

# Leitzan gaur egun euskarak duen egoera aztertuko dute

Euskara zerbitzutik egiten ari diren gogoetaren barruan, bigarren galdetegia jorratuko dute, gaur

### I. Terradillos Leitza

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara zerbitzuak euskararen inguruko «gogoeta estrategikoa» egin asmo du lau herri horietan. Leitza da ekimena burutzen ari diren lehen herria, eta hain zuzen ere, gaur dute pro-

zesuan parte hartzen ari diren eragile eta norbanakoek bilera. Leitzako udaletxean izango da, 18:00etatik aurrera, eta Leitzan egun euskarak bizi duen egoera aztertuko dute bigarren galdetegiaren laguntzarekin.

Dabid Anaut euskara zerbitzuko teknikaria «gustura» dago prozesuan izan duen harrerarekin. Halaber, gaurko bilera irekia dela gogoratu du, eta herritar oro gonbidatu du parte hartzera. Bi edo hiru asteren buruan hirugarren galdetegiaren txanda izango da, hau da, aurrera begira jarraitu beharreko biderei dagokiona.

# Herrira mugimendua aurkeztuko dute Leaburun eta Anoetan

### I. Terradillos

Herrira mugimendua aurkeztuko dute bihar, Leaburuko udaletxean, 20:00etan, eta larunbatean Anoetako udaletxean, 11:00etan. Bi aurkezpenen ostean, maiatzaren 19ko *Goazen Plazara!* egunaz hitz egingo dute. Anoetako aurkezpenaren kasuan, *plazara* hitza irudikatuz argazkia aterako dute, plazan. Horregatik, deia luzatu die herritarrei aurkezpenaz gain, 12:30ean aterako duten argazkian ere parte har dezaten.

## → Laburrak

### Hirigintza Plan Orokor berria, gaur, eztabaidagai

**IBARRA** › Ohiko osoko bilkura egingo dute, gaur, Ibarrako udaletxean, 19:30etik aurrera. Bertan, besteak beste, Ibarrako Hirigintza Plan Orokorrean behin betiko onarpena lortzeko prozedura geldiaraztea eta Plan Orokor berria egiteko proposamenaren onarpena eta Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak aurkezturiko mozioa eztabaidatuko dute.

### Zero zabor helburua ezagutzeko hitzaldia

**ELDUAIN** › *Hondakinak arazo* jardunaldien barruan, Zero Zabor ekimenari buruzko hitzaldia izango da, bihar, Elduaingo kultur etxean, 19:00etan, Zero Zabor taldeko Ainhoa Arrospideren eskutik.

### Moto bira igandean, Langostino elkartearekin

**IBARRA** › Langostino moto kultur elkarteak moto bira antolatu du igandeko. Itziarren hamaiketako egingo dute, eta bira amaituta, Ibarrako Xepla elkartearen bazkalduko dute. Etzi izango da izena emateko azken eguna. Horretarako, eta informazio gehiagorako, [langostino-motofesta@gmail.com](mailto:langostino-motofesta@gmail.com) helbidera idatzi behar da

### Uzturpeko ikasleek gizarte sareak jorratu dituzte

**IBARRA** › Uzturpe ikastolako DBH 3ko ikasleek, Hezkuntza Solidarioa proiektuaren barruan, gizarte sareen inguruko ezagutza zabaltzeko aurkezpen bat burutu dute. Lan hau Ibarrako kultur etxean, bihar, 19:00etatik aurrera aurkeztuko dute jendaurrean. Sextinga-a, Grooming-a eta Ciberbulling-a moduko gaiak jorratu dituzte lan honetan.

## ○ Hilberriak eta urteurrenak

**ANDRES ARANBURU LIZASO** jauna  
Aita hil zen 87 urte ohiak.  
(Ezizokoi eta Aita Santuaren) Bederikoa bere hartu ondoren.  
- Golan bego -

Erretxeko Maiores Etxealde; seme-alabak: Rosa eta Andres, Manier, Jose (†) eta Elena, Ina eta Eli, Xabier eta Nerea; ilobak: Oihaneta Leiza, Asier eta Iñaki, Arandea, Gonka eta Denis, Maddi eta Aizpea, Leñak eta Iñaki; bilobak: Karlatz eta Mamen; etxeko laguntzaileak: Haidibe; anai-arrebak, edon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaldunak, haren arimaren alde oraindi hazi ezakitan dituzte eta arimen etor zaitezkie GAIKI ASTEAZKENA, asteazaldeko 30 TERZETAH, Zarauko SAN JOAN BATSUTZALEA. FRANTZOSKOTARRIEN etxean, egongo den hitzaren. Aiztezt aurretik, mila esker.

Hilabete ohiak: 19 urteko 3.1.  
Orduak: Hilabete Zuzeneko (biderikoa) auzolanak gaur  
9:00 - 10:00 orduak 9:00 - 9:00 orduak. ZARAUZTEN, 2012ko apirilaren 25ean

**RAMON ARRUTI ARAMENDI**

Ustekabeen joan zara baina gurekin betirako zuz emandako maitasuna Adiorik ez, osaba.

Maitasunez, zure ilobak.

Hilabete ohiak: gaur, Zarauko Santa Maria La Real parokian asteazkoko 1etan.

ZARAUZTEN, 2012ko apirilaren 25ean

**FERMINA GOIKOETXEA LULUAGA**  
(Jose Antonio Alzpuaren alarguna)

Seme-alabak: Josep eta Manuel Uranga (+), Maritxu eta Esteban Zubizarreta, Jokin (+); Bilobak: Josu (+), Asier eta Ana, Aiaitz eta Iker, Leire eta Xabier; Bilobak: Olatza eta Maddi.

Hilabete: Elcano Goena baserria.  
Hilabete: Zarauko Santa Ana.  
Hilabete ohiak: gaur, Zarauko Santa Maria La Real parokian asteazkoko 3etan.

ZARAUZTEN, 2012ko apirilaren 25ean



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Zizurkil.** X. Antzerki Astearen barruan gaur, Kutxa Fundazioaren eskutik, *Hotzeder* lana ikusi ahal izango dute 3 eta 6 urte bitarteko haurrek, 15:15etik aurrera, Atxulondo kultur etxean.

■ **Tolosa.** Naturaldia jardunaldien barruan gaur, *El planeta libre* filma 19:30ean, Topic-en. Ondoren, Mario Rodriguez Vargasen solasaldia izango da.

■ **Tolosa.** Jai batzordeak bilera egingo du gaur, 19:00etan, Euskal Herria plazako gerontologi-ko zaharrek gelan. Bileran Sanjoanak izango dituzte hizpide: lehenengo Kuadrila Eguzar ariko dira, eta gero, egitarauaz hitz egingo dute.

■ **Tolosa.** Tolosa Kup txapelketan izena emateko epea gaur amaituko da. Kultur etxera joanda edo 943 67 03 83 telefono zenbakira deituta eman daiteke izena. Zozketa gaur izango da, 18:00etan, kultur etxean. gasen solasaldia.

**ERAKUSKETAK**

■ **Tolosa.** Arantza Munitaren lanak ikusi daitezke Aranburu jauregian maiatzaren 19a arte.

## Asteasu eta Zizurkil artean falta zen bidegorri zatia ireki dute

Bi herrien arteko bidea erabat bukatu dute jada; 611,54 metro ditu zatiak, eta 3 metro zabalera

**Rebeka Calvo**

Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duenez, bukatu dute jada, Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria bukatzeko falta zen ere-

mua. Zati berriak 611,54 metro ditu eta 3 metroko zabalera.

Bidegorri zati honekin bukatutzat ematen dute Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria. «Gure ustez bidea oso garrantzitsua izango da, bidegorri hori egunero mugikortasunarekin eta nahitazko bidegorriarekin lotuta baitago. Gaur egun, txirrindularien %70ak lanagatik, ikasketengatik edo bestelako kontuengatik erabiltzen du», azaldu du foru aldundiak.

Ibilbidean 7 metroko egurrezko pasabidea egin dute, Burresti erreka gainditu ahal izateko. Ibilbidea berritutako zubi baten ondoan bukatzen da, Bengoetxea zerretatik gertu, eta aurretik eginda zegoen bidegorriarekin lotu dute.

Ibilbide osoan aldapa %5 baino txikiagoa da, eta bide guztian argiteria jarri dute. Bidegorri zatia egiteko 360.000 euro inguru biderratu dituzte, eta lanak 4 hilabete-tan egin dituzte.



Bidegorriaren irudi bat. HITZA

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 3274.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

**1 Gorrotxategi**

**Bi kaxa**

Gourmet Tolosa Teilak eta Txokolatezko Cookieak  
[www.gorrotxategi.com](http://www.gorrotxategi.com)

Plaza Zarra, 7 • Tolosa • Tel.: 943-65 12 26



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

**2 Mikel Izagirre**

**Ile mozketa**



[www.lasonet.com/mikel](http://www.lasonet.com/mikel)

Gorosabel, 27 behea • Tolosa • Tel.: 943-67 52 49



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

**3 Txindokiko itzala**  
**Hiru lagunentzat bina sarrera**

Larraitz • Abaltzisketa  
Tel.: 943-10 43 67 • 628-94 72 53  
[www.txindokikoitzala.com](http://www.txindokikoitzala.com)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



**4 Donostiako**  
**Aquariuma**  
**Bi lagunentzako bina sarrera**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **55**



**5 Lagun Aro GBC**  
**Sarrera pareta**

**LAGUN ARO GBC**  
Gescrap Bizkaia Bilbao Basket saskibaloi partida

Apirilak 29 igandea  
12:30ean Donostiako IIunben

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **56**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.